



BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Hasieran esan genuen bezala, gure enpresak erraztasuna izango du fisikoki eta Internet bidez erosteko. Alde batetik, denda fisiko baterako sarbidea izango dugu, jendea jantziak erostera hurbildu eta bere kabuz ikusi eta proba ditzan.

Bezero berriak erakarri ahal izateko, deskontuak eta joera berriak izango ditugu eskura, horrez gain espezializatutako pertsonekin.


Deskontuei dagokienez, lehen erosketan 45 €-tik gora lortzen dituzten bezeroek %15eko deskontua izango dute erosketetan. Bestalde, gure web orrian bazkide egiten diren unean bezeroek % 10eko deskontua izango dute lehen erosketetan.

Uste dugu oso garrantzitsua dela bezeroekin harremanetan egotea, kontaktuan mantentzea eta galderaren bat badute konfiantza guztiarekin guregana jotzea. Horrez gain, bezeroak gure dendara itzultzea, horregatik, garrantzitsua da deskontuak eta aukerak izatea kalitate oneko produktuak prezio eskuragarri batean erosteko. Dena den, bezero berriak eskuratu behar ditugu, jendeak gure berri izan dezan eta enpresa moduan hazi eta gure mozkinak maximizatzeko. Horretarako, oso garrantzitsua eta ezinbestekoa izango da publizitatea; sare sozialak izango ditugu eta bertan jarriko ditugu gure dendako arropak, jendeak ikus dezan.

Gainera, gaur egun, jende askok erabiltzen ditu sare sozialak, beraz oso modu egokia izan daiteke jendeak bertatik gure denda ezagutzeko. Baina onlineko webgune horretan espezializatutako pertsona batek eramango digu eta horren truke soldata bat ordainduko diogu. Webgunean denda fisikoa izan beharren, onlineko denda izango da, baina denda fisikoan ditugun produktu denak eskuratzeko aukera izango dute.

Así será el mercado publicitario en 2021

Pronóstico de la distribución del gasto en publicidad a nivel global, por medio



Iturria: <https://es.statista.com>

Grafiko honetan ikus dezakegu 2021eko merkatu publizitarioan %52 interneta izango dela, ez dakigu aurtengo zifra zehatza, baina ondorioztatu dugu gora egin duela. Beraz, publizitatea oso garrantzitsua izango da gure enpresan, bezeroek gure berri izateko eta bezero gehiago lortzeko.